

# TRATAMENDU ANTIKOAGULATZAILEAREKIN BIZITZEA

## ZER DIRA?

Odolaren koagulazioa aldatzen duten medikamentuak: **odolak koaguluak** (tronboa edo tapoia) **osatzen ematen duen denbora atzeratzen dute**. Odol-hodien barruan odolbildurik ez sortzeko ematen dira, iktusak, tronbosiak edo enboliak ekiditeko.

## MOTAK

- **K antibitamina:** azenokumarola (Sintrom®), eta warfarina (Aldocumar®).
- **Eragin zuzenekoak:** Dabigatrana (Pradaxa®), erribaroxabana (Xarelto®), apixabana (Eliquis®) eta edoxabana (Lixiana®).
- **Heparina injektagarria:** Enoxaparina sodikoa (Clexane®), Dalteparina sodikoa (Fragmin®) etab.

## NOLA ZAINDU NEURE BURUA?

- **Jan denetarik**, modu orekatuan.
- Egin **ariketa fisikoa**. Saihestu kontaktu-ariketa eta kolpeak hartzeko arriskua.
- **Saihestu alkohola, tabakoa eta beste droga batzuk**. Medikamentu antikoagulatzaileekin interakzioa izan dezakete.
- Edozein garraibidetan **bidaiatu** dezakezu.
  - Mugitu eta altxatu sarritan.
  - Taupada-markagailua edo balbula baduzu, abisatu.



Tratamendu antikoagulatzailea hartzen baduzu, litekeena da **odol-galerak edo odoljarioak** gertatzea (odola galtzea, sudurretik, gernuan, gorozkietan, zaurien bidez...). Horregatik, garrantzitsua da erorikoak, kolpeak edo zauriak saihesten saiatzea:

- Erabili bizarra mozteko makina bizar-xaflaren ordez.
- Erorikoak: erabili zapatila itxiak eta kontuz alfonbrekin eta eskailerekin. Argiztapen egokia dagoela zaindu.

## KONTSULTATU ZURE ERREFERENTZIAZKO OSASUN-PROFESIONALAREKIN:



- Kezkatzen zaituen **odoljario** bat nabaritzen baduzu.
- **Hematoma** agertzen badira kolperik hartu gabe, handitu egiten badira edo mingarriak badira.
- **Prozedura inbaditzaile bat egin behar badizute, beti** (biopsia, hortzen erauzketa, ebakuntzak...).

## JOAN LARRIALDI-ZERBITZU BATERA:



- **Odoljario handia bada edo gelditzen ez bada** (gorozki beltzak, odoljarioa sudurrean, odoljario ginekologiko ugaria, odola gernuan edo karkaxan).
- **Buruan kolpe bat hartzen baduzu**, edo mina sentitzen baduzu indarrez edo bat-batean.
- **Hizketaren asaldurak edo ikusmen-galera** nabaritzen badituzu.

## KONTSULTATU OSASUN-ARLOKO PROFESIONALEKIN:

- Medikamentu edo produktu natural berriak hartzen hasi aurretik, edo hartu ohi duzun zerbaitei hartzeari uzten badiozu.
- Egoera berezietan, haurdunaldian eta edoskitzaroan, esaterako.




[www.osakidetza.euskadi.eus/ahotik-hartzeko-tratamendu-antikoagulatzailea/webosk00-oskenf/eu/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/ahotik-hartzeko-tratamendu-antikoagulatzailea/webosk00-oskenf/eu/)



## EZAUGARRIAK

Azken urteotan, ahotik hartzeko antikoagulatuak berriak agertu dira, eta desberdin eragiten dute.

- Soilik daude indikatuta fibrilazio aurikular ez balbularra edo gaixotasun tronboenboliko benosoa duten pazienteentzat.
- Ez da beharrezkoa aldizkako kontrolak egitea efektua neurtzeko.
- Elikadurak ez du aldatzen medikazioaren eragiteko modua.



## ZAINKETAK

- 1** Hartu beti **dosi bera**: egunean behin edo bitan, farmakoaren arabera. Hartualditik 12-24 ordu igarota, eragina gutxitzen doa, eta baliteke nahikoa ez izatea.
- 2** Garrantzitsua da **ez ahaztea** hartu behar dela. Gogoratzeko, egutegi bat, alarmak edo pilula-zorro bat erabil ditzakezu.
- 3** Medikazioa hartzea ahaztu bazaizu, **ez hartu bikoitza** hurrengo egunean. Jarraitu ohiko tratamenduarekin programatutako orduan.
- 4** Osasun-profesionalek giltzurrunaren eta gibelaren funtzioa **aldizka kontrolatzeko** esango dizute.
- 5** Gogoratu zer ordutan hartu duzun azken aldiz antikoagulatuak; izan liteke zure osasun-profesionalak galdetzea edo premiazko arreta behar izatea.
- 6** Ez dira erabili behar ez haurdunaldian ez edoskitzaroan. Haurdun egoteko aukera izanez gero, egin beti proba baieztatzailea eta jakinarazi osasun-profesionalari.
- 7** **Ez eten tratamendua medikuaren indikaziorik gabe.** Interbentzioren bat edo arrisku hemorragikoa duen probaren bat egin behar badizute, kontsultatu beti zure erreferentziazko osasun-profesionalarekin.

